



ENTZEFALOPATIA TRANSMITIGARRIEN ZAINKETA ETA KONTROLARI BURUZKO TXOSTENA (2001-2009)

2010eko otsaila

Egileak:

Lucía Díaz de Lezana. Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Txema Arteagoitia. Osasun Publikoko Zuzendaritza.

M^a José de Pedro. Osasun Publikoko Zuzendaritza.

Lourdes Abadía. Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordetza

Jose M^a Escudero. Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendariordetza

AURKIBIDEA

SARRERA	3
KONTROL PROGRAMAK. ORAINA ETA ETORKIZUNA.....	9
BEEaren ZAINKETA.....	11
<i>Europar Batasuneko BEE gune positiboetako emaitzen laburpena. 2001-2009.....</i>	<i>11</i>
<i>Estatu mailako BEE gune positiboetako emaitzen laburpena. 2001-2009.....</i>	<i>14</i>
<i>Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegieta BEE laginketaren emaitzen laburpena 2001-2009.</i>	<i>18</i>
SCRAPIE EDO DARDARAREN ZAINKETA.....	20
<i>Estatu mailako ardi eta ahuntz azienden dardara fokuen laburpena. 2002-2009.</i>	<i>20</i>
<i>EAEko hiltegieta ardi eta ahuntz azienden dardara laginketaren emaitzen laburpena. 2002- 2009.</i>	<i>21</i>
KONKLUSIOAK	22
AURREIKUSPENAK.....	23
LEGISLAZIO EMAN BERRIAREN BILKETA	23
GIZA ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORME TRANSMITIGARRIAK EAEan.	25
ERREFERENTZIAK	27

SARRERA

1987an, Erresuma Batuan Behi Entzefalopatia Espongiformearen (BEE) lehenbiziko kasuaren berri eman zenetik, eta geroago gaixotasuna beste herrialde batzuetan detektatu zelarik, kontuan hartuta BEEaz kutsaturiko haragi produktuek Creutzfeldt-Jakoben Gaixotasunaren (CJG) aldagai berri bat sorraraz zezaketela, eta bestalde, jakinik zer nolako arriskua suposatzen duten EETek gizakien eta animalien osasunerako, Administrazio Publiko eskudunek lehentasuneko helburutzat hartu zuten mekanismo egokiz hornitzea animalien osasungarritasuna bermatzeko eta are gehiago gizakien osasuna, eta hainbat neurri hartu ziren gaixotasuna elikapen katera igaro ez zedin segurtatzeko.

Krisia hasi zenetik, Administrazio guztiek koordinazio ahalegin handi bat egin zuten gestio maila desberdinetako Erakunde Ofizialen artean, eta hala garatu ziren EETen zainketa eta kontrolerako hainbat programa eta horiei esker lortu da gaixotasunaren eboluzioa ona izatea. Halaber, datu epidemiologiko onak lortu izanak ahalbidetu du EEMMetako neurriak malgutzea dauden datuen arabera.

Europako Batasunean (EB) ezarri ziren zainketa eta kontrol neurrien sistematizazioak, eta gaur egun oraindik aplikatzen direnak, hala nola animalien elikapenean haragi eta hezur irinak debekatzea; Arriskutsu gisa Espezifikaturiko Materialak (AEM) baztertzea; giza kontsumorako hildako animalien zainketa aktiboa; manipulazio praktiken zainketa, nerbio ehunak dituen haragiaren kutsapen arriskua ahalik eta gehien murrizteko; inportazioko produktuen kontrolak; edota entzefalopatia transmitigarriko kasuak berretsi diren animali taldeak deuseztatzeako neurriak hartzea; horiei guztiei esker, lortu da gaur egun “behi eroen krisia” desagertze bidean egotea.

(CE) 999/2000 (EB) Araudiak, EETen Zainketa eta Kontrolerako Programa Nazionalen garapena derrigortu zuen. Estatu mailan, 3454/2000 *Errege Dekretuak*, abenduaren 22koa, *EETen Programa integral koordinatua* bera, kontrol programa betearazteko exijentziak finkatzen ditu hainbat arlotan, hala nola, laginketa irizpideak, beste herrialde batzuetatik datozen animalien segimendu neurriak, prestakuntza programa espezifikoak, animalien elikapenaren arloan eta Arriskutsu gisa Espezifikaturiko Materialen (AEM) tratamenduko establezimendutan egin beharreko kontrolak, AEMaren erauzketa eta ondorengo deuseztapenerako elikapen establezimenduen gaineko kontrolak, nerbio ehunen ondoriozko kutsapen arriskua murrizteko neurriak, diagnostiko probetan emaitza positiboa izan duten kanalak elikapen katetik baztertzea, etab.

Erkidego mailan, *329/2001 Dekretuak*, EETen prebentzio, zainketa eta kontrolekoa, eta honako Sail hauek izenpetua: Industria, Merkataritza eta Turismokoak; Osasunekoak; Ingurumenekoak eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurakoak, ezarri zituen oinarriak EAEan Zainketa eta Kontroleko Programak betearazteko. Dekretu horretan jasotzen diren eta Osasun Sailari dagozkion eskumenen artean, honako hauek aipatzen dira:

- AEMaren erauzketa eta tindaketa gainbegiratzea
- AEM kanaletako hiltegietatik irteerak baimentzea
- Establezimenduen baldintzen kontrola
- Hiltegieta laginak hartzea.

Osasun Sailak hamar urte hauetan zehar garatu dituen programa eta jarduera nagusiak, eta oraindik ere gauzatzen jarraitzen dituenak, honako hauei dagozkienak dira:

1- EAEko hiltegieta hiltzen diren animaliei buruzko **Zainketa**:

Behi ganaduaren zainketako urteroko programa, une honetan *PRE/1431/2009 Aginduak*, *maiatzaren 29koak*, *definitzen dituen arriskuzko azpipopulazioei buruz ezarria*.

EAEan, eta uztailaren 5eko *139/2005 Dekretuan* aldaketatik egiten ez den bitartean, era normalean hiltzeko 30 hilabetetik gorako animalia guztien laginketa egin behar da.

Ardi eta ahuntz aziendaren zainketako urteroko programak giza kontsumorako hiltzen diren 18 hilabetetik gorako ardi azienden laginketa adierazgarri bat eta ahuntz azienda guztiena barne hartzen ditu.

Gainera sistematikoki egingo zaizkie test bereizgarriak skrapie proban positibo eman duten animalia guztiei, BEErik ez daukatela segurtatzeko.

EAEan, zainketa programa hasi zenetik, guztira bahi azienden 213.514 kanal eta ardi/ahuntz azienden 4.021 kanal lagindu dira.

2. Arriskuaren gestioaren gaineko **kontrola**:

- AEMaren erauzketa, tindaketa eta deuseztapena.
- AEMaren erauzketa egiten duten establezimenduen (orain bertan hiltegiak eta zatiketa aretoak), nerbio ehunak eragindako kutsapen arriskua minimizatuko den eran.

- Laginketa eta/edo AEM erauzketa egin zaien haragien etiketatuaren eta trazagarritasuneraren gaineko kontrola.
- AEMaren trazagarritasunaren kontrola.

“Behi eroen krisiaren” gestioarekin batera, EBean, elikapen segurtasuneko oinarritzko printzipioak jasotzen zituzten Araudiak garatu ziren, (EB) 178/2002 Araudian 2002 urtean argitaratu zirenak, eta geroago 2004an: lau araudi. “higiene paketea” izenez ezagutzen direnak. Agintari eskudunek gauzatu beharreko kontrolei buruz europar exigentzia berriak direla eta, EAEan, 2001ean, *“Elikapen establezimenduen kontrol ofizialaren normalizazio prozesua”* jarri zen martxan.

Prozesu honen oinarriak dira establezimenduen arriskuaren araberrako kontrol ofizialaren gestioa eta ikuskapenen maiztasuna aipatu arriskuaren arabera. Gaur egun, EETen zainketa eta kontrol jarduketak kontrol prozesu normalizatu hauen markoan gauzatzen dira.

Zentzu honetan, hainbat kontrol erreminta elaboratu ziren bere garaian eta argitaratutako araudien aldaketetara egokituz joan dira egokituz joan dira; horien artean aipa daitezke:

- *“EAEko Espezie Handien Hiltegietako Instrukzio Teknikoa”, establezimenduei exijitzen zaizkien baldintzak jasotzen dituena.*
- *“EAEko hiltegietako Kontrol Ofizialeko Prozedura Normalizatua”, honako hauek ezartzen dituena: gainbegiratzeko puntuak, gainbegirapenen maiztasuna, hutsuneak sumatzen diren kasuetarako jokabideak eta kontrol jarduketaren erregistro sistema. EETei dagokienez, besteak beste, honako Instrukzio hauek barne hartzen dira:*
- *“EAEko hiltegietan hil diren 30 hilabetetik gorako behi azienden bizkar hezuraren erauzketarako baldintzak.”*
- *“1/2001 Instrukzioa, martxoaren 23koa, EETekin bateragarria den sintomatologia susmatzen zaien animaliei buruzkoa.*
- *“3/2009 Instrukzioa, aurrekoa aldatzen duena.*
- *“EAEko hiltegietako kanalen eta berauetako produktuen lagin jasotze eta ibilgetzearen Sistematika, entzefalopatia espongiforme transmitigarrien zainketa programaren barruan”.*

Krisiaren gestiorako zuzkidura garrantzitsu bat behar izan da, bai baliabide ekonomikoei eta bai giza baliabideei dagokienez.

Hala, EAEko haragi transformazioko elikapen establezimenduek eta bereziki hiltegiek, beren egitura eta laneko sistematika Kontrol Erakundearen exijentzietara egokitu behar izan dituzte; horien artean aipa daitezke:

- Hilketaren antolaketa sistemak egokitzea, animalia populazioko azpitalde desberdinak sartu ahala, berauen hilketa okerrik egin gabe gauzatzen dela bermatu ahal izateko.
- Hiltegiako egiturak, ekipoak eta pertsonala antolatzea laginak zuzen jasotzeko.
- Emaizak jaso bitartean, kanalak biltegiturik edukitzeko lekuak egokitzea.
- Emaizak jaso bitartean, hondakin, azpiproduktu eta larruen biltegitratze eta identifikazio sistemak egokitzea.
- AEMaren manipulaziorako ekipamendu espezifikoa edukitzea, haragien kutsapenak saihesteko.
- Kanala ireki aurretik ornomuina erauzteko ekipoak. Estatu mailako araudiak exijitzen duen baldintza, nerbio ehuna duten haragien kutsapen arriskua minimizatzeke helburuaz.
- Egiturak, ekipoak eta pertsonala edukitzea behi azienden bizkarrezurra erauzteko.
- Kanalen etiketatu sistemak eta merkataritza albaranak aldatzea araudira egokitzeke.
- AEM materialaren trazagarritasunari buruzko erregistroak.

Bestalde, Sailak giza baliabide garrantzitsuak bideratu behar izan zituen kontrol programa espezifikoak betearazteko:

- Hiltegiako albaitari ofizialek, hiltegiek enpresa gisa egunero gauzatzen duten jarduera guztia gainbegiratzen dute, EETen zainketa eta kontrolari dagokion guztian: animalia bizien gaineko kontrola, identifikazioa, ante-mortem ikuskapena, AEMaren erauzketa eta tindaketa, lagin bilketaren kontrola, laborategira bidaltzea, emaitzak ezagutu bitartean kanalak ibilgetzea, haragien etiketatua eta trazagarritasuna, kontsumorako egokiak diren erabakitzea, etab.

- Arriskutsu gisa Espezifikaturiko Materialaren erauzketa eta deuseztapena, edota lan hauek gauzatzen diren elikapen establezimenduetako kontrol neurriak, krisiaren gestioa hasi zenetik kontrol puntu kritikoak izan dira, agente kausala animalien eta gizakien elikapen katera sartzeko arriskua murrizteko helburuaz. Une honetan AEM gisa hartzen dira, eta ondorioz, elikapen katetik baztertzen dira honako produktu hauek:
 - 12 hilabetetik gorako behi azienden garezurra, masailezurra izan ezik, eta begiak eta garunak barne, eta ornomuina. 30 hilabeterik gorako behi ganaduen bizkarrezurra, honako hauek izan ezik: isatseko ornoak, garondo, torax eta gerrialdeko ornoen apofisi hezurtsu eta zeharkakoak eta erreinezurraren hegalkak eta erdiko gandorra, baina bizkarrezur ganglioak barne. Adin guztietako behi azienden amigdalak, duodenotik uzkira bitarteko hesteak eta mesenterioa.
 - 12 hilabetetik gorako ardi eta ahuntz azienden garezurra, honako hauek barne: entzefaloa, begiak, amigdalak eta ornomuina; eta adin guztietako ardi eta ahuntz azienden barea eta ileona.
- Giza baliabideen dedikazio handi bat eskatu zuen beste kontrol jardueretako bat EAEko harategiei, 2001ean eman zitzaien bizkarrezurra erauzteko baimen espresak ekarri zuen, horrek kontrol espezifikoko programa bat elaboratzea eta betearaztea suposatu baitzuen, establezimendu hauetako ekipamendu, manipulazio, dokumental eta erregistro baldintzei dagokienez. Kontrol programa honek ikuskapen bisitak barne hartzen zituen bai harategi baimenduetara eta bai baimen gabekoetara bizkarrezurraren erauzketarako exijitzen ziren baldintzak betetzen zirela egiaztatzeko.
- 2005 urtean, eta bizkarrezurra kentzeko adina 24 hilabetetik gorako behi aziendetara luzatzea ahalbidetuko zuen egoera aldaketaren ondorioz, kalkulatu zen EAEko hiltegietan %37 murrizten zela bizkarrezurra erauzi behar zitzaien behi azienden kopurua. Baldintza hauetan, eta 2001 urteaz gero harategietan gauzatzen zen kontrol espezifikoko urteroko programaren emaitzak kontuan hartuta, baimenak ezeztatzea erabaki zen eta , 2006 urteaz gero, jarduera hori espresuki baimenduriko zatiketa areto eta hiltegietara mugatua geratu zen.
- 2001 urtean, Autonomia Erkidego honek 1/2001 Instrukzioa argitaratu zuen “EETekin bateragarria den sintomatologia aurkezteagatik susmagarri ziren animaliei” buruzkoa, zeinaren arabera: “24 ordu baino iraupen laburragoko

traumatismoa jasan duten 24 hilabetetik beherako animaliak bakarrik onartuko dira giza kontsumorako hiltzeko". Erabaki hau, bere garaian legebiltzarrean interpelazio bat eragin zuena, kasu positiboak zegozkien azpipopulazioei buruzko datuetan oinarrituta hartu zen (batez ere gaixotasun sintomak zituzten eta akabatutako animaliak), eta beste herrialde batzuen jokabidea ikusirik, adibidez, Frantzia, AEB edo Suitzarena, eroritako animaliak giza kontsumorako hiltzeari buruz. Gainera, dekomiso partzial edo totalen objektu ziren animalien edota hiltegia gaixorik iristen zirenen hondakinek positibo eman zutenen kasuistikari buruzko azterketa bat egin zen, eta emaitzek argi eta garbi erakutsi zuten horiek kontsumorako hiltzea saihestu behar zela.

- Gaur egun, Instrukzio hau aldatuta dago “372008 Instrukzioaren” bitartez eta animalien ongizateari buruzko beste alderdi batzuk alderdi batzuk barne hartzen dira, EETekin bateragarri den sintomatologiako kasu posible batzuez gainera.
- 2005ean, eta Elikadurako Albaitari Bulegoak (EAB) emaniko gomendioak kontuan hartuta, Europako Batasunetik, AEMen trazagarritasunaren kontrol zehatzago bat egiteko premia aztertzeko, Espainiara egin ziren bisiten ostean, EAEko hiltegi bakoitzean era bereizian ebaluatu ziren benetako AEMei / AEM estimazioei zegozkien parametroak, hauen arteko erlazio zuzena ebaluatzeko helburuaz, horrela egiaztatu ahal izateko hilketa bolumenaren arabera sortutako AEMak eta transformazio enpresara iristen ziren AEMak bat zetozela.
- Gaur egun, “*Hiltegietakako Kontrol Ofizial Normalizatuko Prozedurak*” barne hartzen du, AEMaren kontrolari dagokion atalean, benetako AEMen eta AEM estimatuen hileroko gainbegiratua, horrela, desbideratze kasuan deskribaturiko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko Prozeduran bertan.

KONTROL PROGRAMAK

Kontrol neurri zorrotzenak ezartzen jarraitzen da, bai EBeko herrialdeetan eta bai kasu positiboak dituzten hirugarren herrialde batzuetan ere, exijitzen diren prebentzio neurriak aplikatuz.

Halere, dauden datu epedemiologikoen argitan, EEMMen Programa Nazionalen irizpideak malgutzen ari dira.

Une honetan, *ekainaren 18ko Batzordearen (EB) 571/2008 Araudiak*, BEEaren segimenduko urteroko azterketa programen irizpideei dagokienez, *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 999/2001 Araudiaren II. Eranskina* aldatzen duenak, eta 2008ko azaroaren 28ko Batzordearen Erabakiak, zeinaren arabera EEMM batzuei baimena ematen baitzaie BEEaren segimenduko euren urteroko programa egokitzeko, ahalbidetu du hainbat herrialdek, horien artean, Belgica, Danimarka, Alemania, Irlanda, Grezia, Espainia, Frantzia, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Austria, Portugal, Finlandia, Suedia eta Erresuma Batua, beren zainketa programa egokitzea. Zentzu horretan, estatu mailan, *PRE/1431/2009 Aginduak, maiatzaren 29koak, abenduaren 22ko 345/2000 Errege Dekretuaren II. Eranskina* aldatzen duenak, *zeinaren arabera xedatzen eta arautzen baita animalien entzefalopatia espogiforme transmitigarrien zainketa eta kontroleko programa integral koordinatua*, jasotzen ditu laginketa irizpide berriak animalien azpipopulazio desberdinei eta hauen jatorriko herrialdeei dagokienez.

Ardi eta ahuntz azienden kasuan, areagotu egin ziren zainketa programak 2006tik aurrera eta harrezkero sistematikoki egiten dira test bereizgarriak hausnarkari txikietan BEErik ez dagoela segurtatzeko. Zainketa programek, behi azienden kasuan bezalaxe, animalia azpipopulazio desberdinen arabera analitikak barne hartzen dituzte. Horrez gain, analitikak egiten zaizkie giza kontsumorako hildako ahuntz azienda guztiei, horrela ziurtatzeko ea Frantzia hildako eta BEE proban positibo eman zuen ahuntz baten kasua salbuespen bat izan zen ala ez.

Hausnarkarien erauzte neurrien aztertze eta malgutzeari dagokionez, etorkizunera begira egiten den planteamendua izan liteke talde infektatuen probak areagotzea, emaitza negatiboen kasuan giza kontsumorako hiltzea baimentzeko eta/edo kohorteko animaliak hiltzea atzeratzeko berauen adin emankorraren amaiera arte, edo berauen kontsumoa baimentzeko proba azkarretan negatibo eman badute.

Azken urte hauetako BEE kasu positiboen adina, eta EBean sumatzen den kasu hauen batez besteko adina gehitzen joateko joera orokorrak (hasiera batean batez bestekoa 6 urtekoa izatetik orain 10 urtekoa izatera iritsi delarik), aldaketa periodikoak ekarri ditu AEMaren kontsiderazioan. Agian gaixotasunak aurkezten duen egoera epidemiologiko aldekoak bide emango du, etorkizunean, AEM nerbio sistema zentralera mugatzeko (eta ehun linfoidera, gaixotasunaren patogenia zehaztasunez ezagutzen ez den bitartean).

BEHI AZIENDEN ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORMEAREN ZAINKETA

EUROPAKO BATASUNEN HERRIALDE BAKOITZEKO KASU POSITIBOEN LABURPENA. URTEAK 2001- 2009

1. Taula 1: Europako Batasunean behi azientei eginiko BEE testen emaitza positiboen laburpena. Urteak 2001-2009.


Herrialdeak	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	Guztira
Frantzia	277	240	138	54	31	8	9	8	10	775
Erres. Batua	1.198	1125	614	343	226	129	67	37	--	3739
Irlanda	246	331	185	121	69	38	25	23	9	1047
Italia	50	36	31	8	8	7	2	1	--	143
Portugal	113	86	133	91	51	33	14	18	8	547
Alemania	125	106	54	65	32	16	4	2	2	406
Espania	83	134	173	138	103	68	36	25	18	778
Holanda	20	24	19	6	3	2	2	1	--	77
Danimarka	6	3	2	1	1	0	0	0	1	14
Grezia	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Belgika	46	38	15	11	2	2	0	0	0	114
Luxenburgo	0	1	0	0	1	0	0	0	0	2
Finlandia	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Austria	1	0	0	0	2	2	1	0	0	6
Suedia	0	0	0	0	0	1	0	0	0	1
Txekiar Errep.	0	0	0	7	8	3	2	0	2	22
Polonia	0	0	0	11	20	10	9	5	4	59
Eslovenia	0	0	0	2	1	1	1	0	0	5
Eslovakia	0	0	0	7	3	0	1	0	--	11
GUZTIRA	2.167	2.124	1.364	865	561	320	173	120	54	7748

Iturria: Animalia Sanitatearen Mundu Erakundea. (OIE). 2010eko otsailaren 15eko datuak.

-- Informazio ez eskuragarria

- ⇒ EBeko herrialde guztiak joan dira foku positiboen tasa gutxitzen.
- ⇒ Datu orokorrekin erakusten dutenez, Erresuma Batua, Irlanda, Frantzia, Espainia eta Portugal izan dira kasu positiboen kopuru handiena eman duten herrialdeak. (Ez dago 2009 urteari dagokion Erresuma Batuko daturik).
- ⇒ Erresuma Batuko intzidentzia nabarmenki murriztu da 1992 urteko gutxi gorabehera 37.000 kasutik, eta 2001 urteko 1.198tik, 2008 urtean detektatu ziren 37 kasuraino.
- ⇒ Herrialde guztiek 2009ra arte murriztu egin dute kasuen kopurua, Frantziak izan ezik, gehitu egin baitu 2008arekin alderatuta.

1. Grafikoa: Bahi azizndaren baitako BEEaren eboluzioa Europako Batasunean Urteak 2001-2009.



Oharra: kontuan eduki 2009ko Erresuma Batuko datuak falta direla.


⇒ Gaixotasun kasuen kopuruaren murrizpena sumatzen da EB guztian, eta horrek adierazten du beheranzko joera mantentzen dela azken urte hauetan

Kasu positiboen banaketa (2001etik 2006ra bitartekoa), arriskuko azpipopulazioen arabera, azpiko taulan islatzen da:

2. Taula: EBeko kasu positiboak arriskuko azpipopulazioen arabera (2001-2006)

Azpipopulazioa	Kasu positiboen kopurua
Animalia akabatuak	3.725
Normal hildako animalia osasuntsuak	1.191
Susmagarriak	2.395
Bestelakoak	102
Guztira	7.413

2. Grafikoa: EBeko kasu positiboen portzentajea arrisku azpipopulazioen arabera



⇒ Kasu positiboen prebalentzia altuena animalia akabatuei dagokie (%51) eta jarraian, ante mortem ikuskapenean gaixotasun sintomak aurkezten zituzten animaliei (%32). Azpimarratzekoa da ante mortem ikuskapenaren arabera, susmagarritzat eman ziren animalia gehienak Erresuma Batuari zegozkiola.


BEHI AZIENDAKO BEE KASU POSITIBOAK ARRISKU TALDEAREN ARABERA ESTATU MAILAN. URTEAK 2001 - 2009

3.Taula: Espainiako BEE kasu positiboen kopurua
Urteak 2001-2009.

Urtea	Kasuak
2000	2
2001	83
2002	134
2003	173
2004	138
2005	103
2006	68
2007	40
2008	25
2009	18
Guztira	766

Iturria: Ingurumen eta Landa eta Itsas
Ingurunearen Ministerioa


3. Grafikoa: Espainiako behi azienden BEE kasu positiboen kopurua urtez urte
Urteak 2001-2009.



⇒ Oro har, testaturiko behi azienden kopurua berdin mantentzen da eta kasu positiboek gutxiagotzen jarraitzen dute 2004az gero, beste herrialde batzuetako joerari jarraituz, behin 2003an kasu kopuruaren gailurra garaitu zenetik.

- ⇒ 2008an testatu ziren milioi erdi pasa animalietatik (524.557), %0,004ak eman zuen positibo BEE proban. Prebalentzia aurreko urteetakoa baino baxuagoa da.
- ⇒ Prebalentzia altuagoa da EBak aurkezten duen batez bestekoa baino.
- ⇒ Joera bera sumatzen da Irlandan, Portugalen eta Frantzian ere, alegia, kasu kopuru altuena aurkezten duten herrialdeetan.


4. Grafikoa. Espainian egin diren laginketa guztien arteko kasu positiboaren portzentajea arrisku azpipopulazioen arabera. 2008 urtea.



- ⇒ Aurreko urteetan bezala, kasu positiboaren prebalentzia altuena akabatutako animaliei dagokie (%56) eta jarraian kontsumorako normal hil diren animalia osasuntsuei (%24).
- ⇒ Azpipopulazioen araberako kasu positiboaren indizea egonkor mantentzen da Espainian, EBeko gainerako herrialdeetan bezala.

⇒ Kasu positiboen Autonomia Erkidegoen araberako banaketari dagokionez, oro har eta aurreko urteetan bezala, Galizia eta Gaztela eta Leon izan ziren kasu positiboen intzidentzia altuena aurkeztu zutenak.


Número de focos de Encefalopatía Espongiforme Bovina en España 2009



Iturria: Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioa

Azpiko grafikoan behi azienden BEE kasu positiboen banaketa aurkezten, animalien adinaren arabera.

5. Grafikoa: Maiztasuna adinaren arabera. Estatu mailakoa.
Urteak 2001-2008



Iturria: Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioa

⇒ Kasu positiboen adina gehituz joan da 2001 urteaz gero (batez beste 6 urteko adina) 2008ra arte (batez beste 10 urteko adina).

EAEko HILTEGIETAN BEHI AZIENDEI EGINIKO BEE LAGINKETEN EMAITZEN LABURPENA. URTEAK 2001-2009

4. Taulan aurkezten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hiltegietan hil diren behi aziendei eginiko BEE testen emaitzak, eta kasu positiboak, dagokien azpipopulazioaren arabera.

4. Taula: EAEan behi aziendei eginiko BEE testen emaitzen laburpena. Urteak 2001-2009.

Urtea	Test kop.	Positiboak	<i>ante-mortem</i> Sintomatologia	Hilketa normala
2001	27.056	3	3	0
2002	32.307	4	2	2
2003	29.796	3	0	3
2004	24.553	1	0	1
2005	29.171	2	0	2
2006	20.238	1	0	1
2007	17.671	0	0	0
2008	15.833	0	0	0
2009	16.889	0	0	0

Iturria: EAEko kontrol ofizialeko unitateen hilketa eta laginketako datuak

Oharra: Testaturiko animalien batez bestekoa 26.000 ingurukoa da.

- 2001 urtean, hiru diagnostiko positibo erregistratu ziren Mafridoko hiltegian (Donostia) kontsumorako hildako animalietan; haietako bi Nafarroako Autonomia Erkidegotik ekarriak ziren eta bat EAEkoa. Ezein kasutan, animaliekin zetorren dokumentazioan ez zen aipatzen BEEarekin bateragarria den sintomatologiarik; halere, *ante mortem* ikuskapenean, sintoma bateragarriak detektatu ziren (erorketa, ibilera asaldak, ikusmen asaldak).
- 2002 urtean, lau diagnostiko positibo erregistratu ziren; horietako hiru, Bilboko udal hiltegian hildako animalietan, Asturias, Burgos eta Cacerestik ekarriak. Animaliekin zetorren dokumentazioan ez zen aipatzen BEEarekin bateragarria den sintomatologiarik; halere, *ante mortem* ikuskapenean, Albaitari Zerbitzu Ofizialak Behi Entzefalopatia Espongiformearekin bateragarriak diren ibilera anomalien presentzia detektatu zuen animalia haietako batean. Laugarren kasu positiboa, Mafridoko hiltegian (Donostia) hil zen eta Aragoitik ekarria zen. Ez animaliarekin zetorren dokumentazioan eta ez *ante mortem* ikuskapenean ez zen detektatu sintoma bateragarriarik, halere, animalia hark erorketa bat jasan zuen hil aurretik.

- 2003 urtean, hiru diagnostiko positibo erregistratu ziren EAEko hiltegietan kontsumorako hiltzera eramandako behi aziendetan; horietako bi Mafridoko hiltegian (Donostia) eta bat Bilboko hiltegian. Animaliak Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako abeltegietatik ekarriak ziren.
- 2004 urtean, diagnostiko positibo agertu zen Vitoria-Gasteizko hiltegian hildako behi azienda batean.
- 2005 urtean, BEE kasu positibo bat diagnostikatu zen Donostiako hiltegian Kataluniako Autonomia Erkidegotik ekarritako animalia batean.
- 2006 urtean, bi kasu positibo diagnostikatu ziren kontsumorako hiltzeko bi animaliatan; bata Bilboko hiltegian eta bestea Donostiakoan. Animalia hauen jatorriak Gaztela eta Leon eta Gpuzkoa ziren, hurrenez hurren.
- 2003 urtetik 2006ra bitartean, ezein kasu positibotan ez zen detektatu BEEarekin bateragarria den sintomatologiarik, ante mortem ikuskapenean.

SCRAPIEAREN ZAINKETA

Ardi azienden baitako programak, gaur egun, laginketa aleatorioko zainketa planak barne hartzen ditu, eta 18 hilabetetik gorako animaliei edo jadanik 2 ebakortz iraunkor badituztenei egiten zaizkie, giza kontsumorako hilak zein ez, eta horiez gain, EETekin bateragarria den sintomatologia aurkezten duten animalia guztiei.

Ahuntz azienden kasuan, eta (EB) 214/2005 Araudia argitaratu izanaren ondorioz, ahuntz azienden %100ari egiten zaio laginketa, bai giza kontsumorako hildakoei eta bai berez akabatutakoei.

Animalia guztiei egiten zaie BEE/Scrapie bereizketa proba. Oraingoz ez da agertu BEE testetan emaitza positiborik ardi/ahuntz aziendetan.


ESTATU MAILAKO ARDI ETA AHUNTZ AZIENDEN DARDARA (SCRAPIE) FOKUEN LABURPENA. 2000-2008

5. Taula: Dardara testen emaitzen laburpena.
2000-2008.

Urtea	Ikertutako animalien kopurua	Animalia positiboen kopurua	Foku kopurua	Kontsumorako hildako animalien kopurua
2.001	4.715	22	4	2.403
2.002	50.040	42	15	11.562
2.003	77.486	139	31	33.240
2.004	31.833	48	20	21.831
2.005	73.736	125	47	25.608
2.006	153.131	151	53	28.531
2.007	92.674	168	48	24.685
2.008	54.298	245	38	20.089
TOTALES	537.913	942	242	166.949

Iturria: Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioa

6. Grafikoa: Eginiko laginketa guztien arteko kasu positiboen portzentajea arrisku azpipopulazioen arabera. Urtea 2008.



⇒ Oro har, egonkor mantentzen da animalia positiboen intzidentzia.

⇒ 2008, mantendu egiten da arrisku azpipopulazioen araberako positiboen prebalentzia, indize altuena animalia akabatuei dagokielarik.

EAEko HILTEGIETAKO ARDI ETA AHUNTZ AZIENDEN DARDARA LAGINKETAREN EMAITZEN LABURPENA. URTEAK 2002-2009.

6. Taula: Gaixotasunaren eboluzioa EAEan

Urtea	Animalia testatuen guztizkoa	Positiboen guztizkoa
2002	663	0
2003	811	0
2004	457	0
2005	275	1
2006	413	0
2007	626	0
2008	503	1
2009	273	2

Iturria: EAEko kontrol ofizialeko unitateen hilketa eta laginketako datuak

- ⇒ EAEan 18 hilabetetik gorako ardi eta ahuntz azienden hilketa, ia beti, produkzioarako ahituak dauden animalia zeharretara mugatua da.
- ⇒ EAEko hiltegiak, normalean, abere ustiapen berberetatik datorren ganaduaz hornitzen dira kontsumorako, horregatik, sarritan errepikatzen dira laginketak ustiapen horietan.

KONKLUSIOAK

- Behi azienden baitako BEEaren intzidentzia progresiboki gutxiagotzen ari da EBean.
- Giza kontsumorako hil ez diren eta analizatu diren animalien prebalentzia (bereziki, akabatutako animaliena) altuagoa da kontsumo normalerako hil direnena baino.
- Animalia positiboen adina handiagoa da urtetik urtera.
- EETrako positibo eman duen ezain ardi/ahuntz azienda ez da berretsia izan BEE testean.
- Oro har, esan daiteke kasuen kopuruaren murrizpenak eta positiboen adina gehitzeak garbi erakusten dutela kontrol neurriak eraginkor gertatzen ari direla eta hobekuntzarako joera sumatzen dela BEE epidemian, eta egoera nabarmenki hobetzen ari dela.
- Inkubazio denbora oso luzea denez, oraindik urteak falta dira BEE guztiz erauzia dagoela espero izateko.
- Eboluzio positiboak bide eman du gaixotasunaren zainketa eta kontrol neurriak malgutzeko, eta horrelaxe jaso geratu 2005ean Europako Batzordeak elaboratu zuen “bidai orrian”.

AURREIKUSPENAK

Bai Batzordeak 2005ean argitaratu zuen “Bidai orria” eta bai azken txostena: *“Report on the monitoring and testing of ruminants for the presence of transmissible spongiform encephalopathies (TSEs) in the EU in 2007”*, gaixotasunaren eboluzioari buruzkoa kontuan edukita, eta aipaturiko emaitzak ikusirik, aurrean daiteke etorkizunean ere malgutzen joango direla zainketa eta kontrol neurriak, hala nola:

- Animalia bizi eta adin jakin batzuetakoei (gaurko datan merkaturatuak ez daudenei) testak egitea.
- Zainketa murriztea, baldin animalia positiboen adinak luzatzen jarraitzen badu.
- Arriskuko azpipopulazioen gaineko zainketa: akabatutakoak, gaixotasun sintomak dituztenak, azken batean, positiboen prebalentzia altuena aurkezten duten taldeetara zuzenduriko jarduketak.
- AEM materialaren kontsiderazioa malgutzea, Nerbio Sistema Zentralera eta ehun linfoidera mugatuz, adin taldeen arabera.
- Tegien ziurtapenak, animalia biziaren gaineko testak egiten diren kasuan.
- Behi azienden erauzpen irizpideak aldatzea, genotipo jakin batzuen erresistentzia frogatzen bada.

2006 URTEAZ GERO ARGITARATURIKO LEGERIAREN LABURBILKETA

Jarraian aurkezten dira 2006 urteaz gero argitaratu diren araudiak (argitaratu zen aurreko BEEari buruzko txostena 2001-2006 aldiari zegokion), Osasun Sailaren eskumenei dagozkien zainketa eta kontrol programei buruzkoak:


- Kontseiluaren (EB) 700/2007 zk.ko Araudia, 2007ko ekainaren 11koa, 12 hilabeteko edo gutxiagoko behi azienden haragiaren merkaturatzeari buruzkoa.
- Kontseiluaren (EB) 722/2007 zk.ko Araudia, 2007ko ekainaren 25ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 999/2001 zk.ko Araudiaren II, V, VI, VIII, IX eta XI. eranskinak aldatzen dituen, zeinak ezartzen baititu entzefalopatia espongiforme transmitigarri jakin batzuen prebentzio, kontrol eta erauzpenerako xedapenak.

- Kontseiluaren (EB) 227/2007 zk.ko Araudia, 2007ko ekainaren 26koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 999/2001 zk.ko Araudiaren I, III, VII eta X. eranskinak aldatzen dituen, zeinak ezartzen baititu entzefalopatia espongiforme transmitigarri jakin batzuen prebentzio, kontrol eta erauzpenerako xedapenak.
- Batzordearen (EB) 357/2008 Araudia, 2008ko apirilaren 22koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 999/2001 zk.ko Araudiaren V. eranskina aldatzen duena, zeinak ezartzen baititu entzefalopatia espongiforme transmitigarri jakin batzuen prebentzio, kontrol eta erauzpenerako xedapenak (bizkarrezurraren erauzketa 30 hilabeteko adinera atzeratzen du).
- Batzordearen Erabakia, 2008ko azaroaren 28koa, Estatu kide batzuei BEEaren segimenduko euren urteroko programa egokitze baimena ematen diena.
- Batzordearen (EB) 571/2008 Araudia, 2008ko ekainaren 19koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 999/2001 zk.ko Araudiaren III. eranskina aldatzen duena, BEEaren segimenduko urteroko programa egokitzeari dagokionez.
- PRE/1431/2009 Agindua, maiatzaren 29koa, abenduaren 22ko 3454/2000 Errege Dekretuaren II. eranskina aldatzen duena, animalien entzefalopatia espongiforme transmitigarrien zainketa eta kontroleko programa integral koordinatua ezartzen eta arautzen duena (behi azienden laginketa adina gehitzen du).
- PRE/156/2009 Agindua, urtarrilaren 30ekoa, azaroaren 24ko 1911/2000 Errege Dekretuaren IV. eranskina aldatzen duena, entzefalopatia espongiforme transmitigarriak direla eta arriskutsu espezifikaturiko materialen deuseztapena arautzen duena (behi azienden bizkarrezurraren erauzketa 30 hilabeteko adinera atzeratzen du).
- 361/2009 Errege Dekretua, martxoaren 20koa, kontsumorako hiltzera bideratzen diren animaliek eduki behar duten elikapen kateari buruzko informazioa arautzen duena.

GIZA ENTZEFALOPATIA ESPONGIFORME TRANSMITIGARRIAK EAEan


- ⇒ Giza Entzefalopatia Espongiforme Transmitigarriak (GEET) gaixotasun ezohikoak dira gizakiengan eta forma esporadikoak dituzte: Creutzfeldt-Jakoben Gaixotasun (CJG) tipikoa edo CJG atipikoak, forma hartuak: CJG iatrogenikoa, Kurua eta “aldagai berria” CJG (CJGa) eta forma hereditarioak: CJG Familiarra, Insomnio Familiar Larria (IFL) eta Gerstmann-Straüssler-Scheinker-en (GSS) sindromea.
- ⇒ GEETek gaur egun Osasun Publikoko arazo larria suposatzen dute, batez ere 1996an Creutzfeldt-Jakoben Gaixotasunaren aldagai berria sortu zenetik, Behi Entzefalopatia Espongiformearekin erlazionatua. Hori dela eta, azken urte hauetan zainketa epidemiologiko berezi baten pean egon dira gaixotasun hauek Europa guztian.
- ⇒ Espainiar Estatuan, Giza Entzefalopatia Espongiforme Transmitigarrien zainketari 1995ean ekin zitzaion eta 2001eko otsailean arautu zen Zainketa Epidemiologikoko Sare Nazionalean integratuz. Jakinarazpen hau ia eksklusiboki neurologiako mediku espezialistek egiten badute ere, 2001 urtearen erdialdetik aurrera, EAEan derrigor aitortu beharreko gaixotasunak dira mediku eta osasun erakunde guztientzat. Zainketa horren helburua gaixotasunaren intzidentzia, banaketa eta profil kliniko-epidemiologikoa ezagutzea da eta, horrez gain, kasu iatrogenikoen eta CJGaren aldagai berriaren agerpena detektatzea.
- ⇒ GEET klasikoak mundu guztian gertatzen dira. EAEan 1993 urteaz geroko datuak dauzkagu, harrezkero, eta 2009ko abendura bitartean guztira 98 kasu erregistratu direlarik; horietako 75 CJG kasu esporadikoak izan dira (10 kasu posible, 22 zalantzazko eta 43 ziur); gainerako 23 kasuak jatorri familiarrekoak dira: 18 Insomnio Familiar Larriari dagozkio, 2 Gerstmann-Straüssler-Scheinker GSS sindrome kasuak dira eta 3 CJG familiar kasuak. Euskadin ez da erregistratu kasu iatrogenikorik ez eta CJG (CJGa) aldagai berriarenik ere.
- ⇒ CJGa-ri dagokionez, 213 kasu ezagutzen dira, honela banatuak: Erresuma Batuan 166 kasu, 2000 urteaz gero intzidentziak behera egin duelarik; Frantzia 25 kasu; Espainian 5 kasu; Irlandan 4 kasu; AEBetan 3 kasu; Portugalen, Holandan eta Italian bina kasu; Kanadan, Saudi Arabian eta Japonian kasu bana.

7. Grafikoa: CJGa Erresuma Batuan. 1995-2009*



*166 kasu 2010eko urtarrilera arte
Iturria: Osasun Ministerioa. Erresuma Batua

8. Grafikoa: CJGa Frantzia. 1996-2009*



*25 kasu berretsi 2009ko abendura arte
Iturria: INVS. France.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- BSE - Monthly Reports of Member States on BSE and TSE
www.europa.eu.int/comm/food/food/biosafety/bse/mthly_reps_en.htm
- BSE inspections and controls.
www.europa.eu.int/comm/food/food/biosafety/bse/inspections_en.htm
- OMEren gomendioak
www.who.int/mediacentre/factsheets/fs113/en/
- Erresuma Batuan deklaraturiko BEE kasuen kopurua
www.oie.int/esp/info/es_esbru.htm
- Mundu guztian, Erresuma Batuan izan ezik, bahi aziendetan deklaraturiko BEE kasuen kopurua
www.oie.int/esp/info/es_esbmonde.htm
- CJGa-aren datuak
<http://www.cjd.ed.ac.uk/figures.htm>
- Espainiako EETei buruzko informazio orokorra.
www.eeb.es
- Report on the monitoring and testing of ruminants for the presence of Transmissible Spongiform Encephalopathy (TSE) in the EU in 2005.
http://ec.europa.eu/food/food/biosafety/bse/annual_report_tse2005_en.pdf
- EETetarako bidai orria
http://ec.europa.eu/food/food/biosafety/bse/roadmap_es.pdf
- Laginak hartzeko eta EETetarako erreferentziako laborategi nazionalera bidaltzeko eskuliburua. 2006ko otsaila. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.
http://www.eeb.es/pags/manual_vigilancia_feb-2006.pdf
- Espainiako EETei buruzko txosten epidemiologikoa. 2005 urtea. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.
http://www.eeb.es/pags/informe_EET_05.pdf

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Kontrol Ofizialeko zerbitzuek, EAEko hiltegietan gauzatzen duten EETen segimendu eta kontrolaren objektu diren animalien hilketari buruzko datuak.
- Giza Entzefalopatia Espongiformeen Erregistroa.
- Gizakien baitako CJGa-ren datuak, Erresuma Batuari eta Frantziari dagozkionak.

<http://www.cjd.ed.ac.uk/figures.htm>

<http://www.invs.sante.fr/actualite/index.htm>

Azken oharra:

Bi urtetik bi urtera argitaratu ditu Sail honek ebaluaturiko aldi bakoitzari zegozkion txostenak eta gauzaturiko jardueraren emaitzak.

Txosten honetan, Entzefalopatia Espongiforme Transmitigarrien zainketa eta kontrolaren arloan EAEan, gauzatu den jardueraren laburpena jasotzen da eta, horrez gain gaixotasunaren datu epidemiologikoen aurkezpen bat egiten da EB mailan, Estatu mailan eta Erkidego mailan, eta “behi eroen” krisia gestionatzen dihardugun azken hamar urte hauetan gaixotasunak nola eboluzionatu duen azaltzen da.